

2023

Prestakuntza- Jardueren

PROGRAMA

OTSAILA - EKAINA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

PRESTAKUNTZA JARDUEREN PROGRAMA

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoak prestakuntza-proposamen berri hau aurkezten dizue 2023ko lehen sei hilekorako. Prestakuntza-proposamenaren bitartez, denboran zehar eta plangintzaren aurretik urtero bidaltzen dizuegun galdetegiaren bidez bidaltzen joan zareten iradokizunak jasotzen ahalegintzen gara, bai formatu, bai eduki aldetik.

Formatuari dagokionean, gero eta pertsona gehiagok eskatzen digute etengabeko prestakuntza, askotarikoa eta malgua, norberaren egoeretara egokitu ahal izatearren.

Edukiari dagokionez, berriz, sei hileko honetan prestakuntza-eskaintza honako hauek osatuko dute: lau ikastaro, bi tailer eta hiru mintegi *online* edo webinar eran.

Prestakuntza-eskaintza horretaz gain, gogorazi nahi genuke prestakuntza osa daitekeela Gizarte Langintza-ko beste Elkargo Profesional batzuek eta Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak antolatutako beste prestakuntza-proposamen batzuekin. Horiek zabaltzen joaten gara sareen eta/edo asteko buletinaren bitartez.

1. IKASTAROAK

Gure lanbidean aritzeko gure trebetasunak eta gaitasunak hobetzen laguntzen duten prestakuntza-jarduerak dira. Sei hileko honetarako honako ikastaro hauek planifikatu ditugu:

- **“ETXEZ ETXEKO BISITA GIZARTE LANEAN”**
ROSA GÓMEZ TRENADO
100 ordu
Online ikastaroa. OTSAILA
- **“ESKU-HARTZE SOZIALA NAHASMENDU MENTAL LARRIAREN ERAGINPEAN DAUDEN FAMILIEKIN”**
ATEYAVANA Osasun Mentalean Integratzeko Laguntza Zentroa
100 ordu
Online ikastaroa. MARTXOA
- **“ELKARRIZKETA ETA ALDAKETA ESKU-HARTZE SOZIALEAN”**
DAVID MUSTIELES
20 ordu
Online ikastaroa. MARTXOA
- **“PERTSONARENGAN ETA GIZA SUFRIMENDUAN OINARRITUTAKO EREDUA: BOTEREA, MEHATXUA ETA ESANAHIAREN ESPARRUA”**
MIKEL VALVERDE
10 ordu
Aurrez aurreko ikastaroa. MAIATZA

2. TAILERRAK

Jarduera hauetan, gaia modu labur eta/edo praktikoagoan gauzatzen da. Arratsalde batean edo bitan egin ditzakegun jarduerak dira, Gizarte Langintzaren alderdi mordoaren barnean azertu beharreko gai interesgarriei buruzko zertzeladak eman diezazkiguketanak. Sei hileko honetan, bi tailer planifikatu ditugu:

- **“ELKARRIZKETA-TREBETASUNAK LIDERRA IZATEKO”**
JESÚS MARI ELIZALDE
6 ordu
Aurrez aurreko ikastaroa. OTSAILA
- **“EGUNEROKO BIZITZARAKO OINARRIZKO BITARTEKARITZA-TREBETASUNAK”**
GEMA ESCALADA eta JOSEAN VILLANUEVA
6 ordu
Aurrez aurreko ikastaroa. MAIATZA

3. ONLINE MINTEGIA / WEBINARRA

Gure ustez, beharrezkoa da topaketak sustatzea eta beste elkargokideak inspira ditzaketen gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea. Nafarroa osoko elkargokideek parte hartzea errazteko, honako hauek *online* eran egingo ditugu. Sei hileko honetarako ondorengoak planteatu ditugu:

- **“TALDEKO ESKU-HARTZERAKO PARADIGMAK” WEBINARRA**
DAVID MUSTIELES
2 ordu
Online. MARTXOA
- **“JARDUERA LIBREA” WEBINARRA**
SILVIA MONGE
2 ordu
Online. APIRILA
- **“IDAZKERA ETA GIZARTE LANA” WEBINARRA**
BELÉN NAVARRO
2 ordu
Online. EKAINA

(*) OHAR ARGIGARRIAK

IKASTAROAK

1

“Etxez etxeko bisita Gizarte Lanean”

ROSA GÓMEZ TRENADO

ONLINE IKASTAROA

100 ORDU

TALDEA GUTXIENEZ:

12 parte-hartzaile

DATA: 2023ko OTSAILAren 6an hasi eta MAIATZAren 5ean amaituko da.

IZENA EMATEKO AZKEN

EGUNA: 2023ko otsailak 1

PREZIOA:

75 € Langabezian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

90 € Nafarroako elkargokideentzat (jardunean daudenentzat).

100 € Gizarte Langintzako beste Elkargo batzuetako elkargokideentzat.

125 € Gainerako pertsonentzat.



Gizarte-laneko teknikari gisa etxez etxe bisitak egiteari esker, Gizarte Langintzaren metodoaren faseen barruko helburu profesional ezberdinak eskuratu ahal izango ditugu. Norbanakoa bere ingurune sozialean aztertzekeo beharretik, etxez etxeko bisitak aukera emango digu “*in situ*” ezagutzeko ezarritako helburuak lortzeko beste testuinguru batzuek ematen ez digutena.

Ikastaro honen helburu orokorra da pertsonekin esku-hartze integrala etxeko testuinguruan eta testuingurutik maneiatzen ikastea.

Helburu espezifikokoak:

- Teknikari profesionalaren helburu nagusiak identifikatzea.
- Hainbat kasuistikan, etxez etxeko bisitak egiteko jarraibideak ezartzea.
- Egiten jakiteko elementuak elkarri lotzea.
- Teknika horren beharra praktika profesionalean integratzea.
- Teknika profesionalaren erabilera ezberdinen aurrean, gaitasun kritikoa hartzea.

+Info
Izen-ematea

IKASTAROAK

2

“Esku-hartze Soziala nahasmendu mental larriaren eraginpean dauden familiekin”

ATEYAVANA S. COOP.



ONLINE IKASTAROA

100 ORDU

TALDEA GUTXIENEZ:

5 parte-hartzaile.

DATAK: 2023ko

MARTXOAREN 6an hasiko da eta MAIATZAREN 8an amaituko da.

IZEN-EMATEKO AZKEN

EGUNA: 2023ko martxoak 1

PREZIOA:

75 € Langabezia dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

90 € Nafarroako elkargokideentzat (jardunean daudenentzat).

100 € Gizarte Langintzako beste Elkargo batzuetako elkargokideentzat.

125 € Gainerako pertsonentzat.

Nahasmendu Mental Larriak (NMLk) eragindako erabiltzaileekin esku-hartzeko, foku anitzeko ikuspegia izan behar da kontuan, ezbairik gabe, erabiltzailearen garapenean aldeko edo kontrako eragina duten faktoreak eta bizi-arlo guztiak aintzat hartzeko. Gizarte Langintzako profesionalok abiapuntu bezala izan behar dugun misio integratzaileak erabiltzailea bere testuinguruan ikusteko gaitasuna eman behar digu, ingurunearekin eta inguruneak harekin duen harremanarekin ere lotuta, eta ikuspegi horretatik sine qua non baldintza da familiaren dinamika aztertzea, ebaluatzea, diagnostikatzea eta bertan esku hartzea.

Hori guztia dela-eta, NMLk eragindako pertsona batentzat Osasun Mentalean esku hartzeko plana planteatzeko, planaren barruan sartu behar ditugu erreferentziazko senitartekoak, diagnostikotik eta gaixotasunaren ibilbidetik

familiarentzat eratorritako beharrak errazago estaltzeko ekintza zehatzekin.

NMLk zuzenean edo zeharka eragindako pertsonekin Gizarte Lanetik esku hartzeko orduan aurkitzen dugun arazo nagusietako bat da informaziorik ez izatea eta, ondorioz, ezta erreminta pertsonal, sozial eta psikologikorik ere gaixotasunak ezarritako erronkei aurre egiteko. Ateyavanak proposatutako prestakuntzan, ibilbide bat egingo dugu NMLk eragindako familiekiko esku-hartzearen historian zehar, prozesu horretan inplikaturako profesionalak espezializatzea, haien beharrak ulertzea eta diagnostikoak kaltetutako bizi-arlo guztiei erantzunak ematen dizkieten esku-hartze konplexuak diseinatzea errazteko.

+Info
Izen-ematea

IKASTAROAK

3

“Elkarrizketa eta aldaketa Esku-hartze Sozialean”

DAVID MUSTIELES
www.hacerlobien.net



ONLINE IKASTAROA

20 ORDU. 12 ordu zuzenean zoom bidez eta 8 ordu online plataforma digitalean

TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile

DATA: 2023ko MARTXOAREN 9an hasiko da eta APIRILAREN 30n amaituko da.

IZENA EMATEKO AZKEN

EGUNA: 2023ko martxoak 1

ORDUTEGIA:

17:00etatik 19:00etara.

ONLINE ZUZENeko

EGUNAK:

1. Saioa: martxoak 9, osteg.
2. Saioa: martxoak 16, osteg.
3. Saioa: martxoak 30, osteg.
4. Saioa: apirilak 13, osteg.
5. Saioa: apirilak 20, osteg.
6. Saioa: apirilak 27, osteg.

PREZIOA:

50 € Langabezian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

60 € Nafarroako elkargokideentzat (jardunean daudenentzat).

75 € Gizarte Langintzako beste Elkargo batzuetako elkargokideentzat.

100 € Gizarte-langintzako profesionalentzat, elkargokide ez direnentzat.

Prestakuntza-ekintza gure jardura profesionalean tekniarik garrantzitsuena eta egunerokoena denean oinarritzen da; hau da, elkarrizketa. Horrela, 30 urteko lan profesionalean zehar landutako lan- eta antolakuntza-eredu sendoa eskaintzen da, arlo horretan berarekin batera trebatu diren ehunka profesionalen eskutik irakasleak jasotako feedback-arekin aberastua.

Prestakuntzaren helburua da dauden trebetasun tekniko eta kontzeptualak hobetzea eta beste berri batzuk sortzea, elkarrizketak egiteko orduan hobeto jarduteko.

+info
Izen-ematea

IKASTAROAK

4

“Pertsonarengan eta giza sufrimenduan oinarritutako ereduak: Boterea, Mehatxua eta Esanahiaren Esparrua (BME)”

MIKEL VALVERDE

**AURREZ AURREKO
IKASTAROA**

10 ORDU

TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile

DATA: Hasiera MAIATZAK 12-13 eta 19an amaituko da.

IZEN EMATEKO AZKEN

EGUNA: 2023ko maiatzak 2

ORDUTEGIA:

1. Saioa: maiatzak 12, ostirala, 17:00etatik 20:00etara.
2. Saioa: maiatzak 13, larunbata, 9:00etatik 13:00era.
3. Saioa: maiatzak 19, ostirala, 17:00etatik 20:00etara.

PREZIOA:

40 € Langabezian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte



Langintzako ikasleentzat.

50 € elkargokideentzat (jardunean daudenentzat).

60 € Gizarte-langintzako profesionalentzat, elkargokide ez direnentzat.

Aditu- eta diagnostiko-ereduaren zenbait gabezia gainditzeko, pertsonarengan oinarritutako ereduak sortu zen, pertsonak berak definitutako beharrak eta helburuak jasotzeko eta elkarlanerako laguntza emateko modu gisa. Pertsonarengan oinarritutako ereduak, zerbitzuaren erabiltzaileen aurrean jarrera filosofikoa eta etikoa sustatzeaz gain, eguneroko praktikan erronkei aurre egiteko garapen espezifikoak eman ditu.

BME Esparrua hainbat eza-gutza-eremutan jasotako

ebidentzia-sorta zabal batean oinarritzen da, ezbeharrak nola sortzen diren eta pertsonen bizitzan eta haien harremanetan (zerbitzuak barne) nola eragiten dieten adierazteko.

Zailtasunak arazo-egoeraren jatorrian egon zitezkeen botere-desorekekin lotzen dituen narrazio-ikuspegia ematen du, bezero edo erabiltzaileen jokabide batzuetan nahasgarri edo desegokiei zentzua aurkitzen laguntzearekin batera. Era horretan, zailtasunak gainditzeko laguntza-moduak bistaratzeko aukera ematen du, prestazioetatik haratago, horiei ere zentzu eta indar handiagoa emanaz.

**+info
Izen-ematea**

TAILERRAK

1

“Elkarrizketa- trebetasunak liderra izateko”

JESÚS MARI ELIZALDE

AURREZ AURREKOA

6 ORDU

TOKIA:

NGLEOren sedean. Iruñea

TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile.

DATA: 2023ko OTSAILAK 7,
asteartea eta OTSAILAK 14,
asteartea

IZEN EMATEKO AZKEN

EGUNA: 2023ko otsailak 2,
osteguna

ORDUTEGIA:

17:00etatik 20:00etara.

PREZIOA:

30 € Elkargokideentzat,
aurre-elkargokideentzat
eta Gizarte Langintzako
ikasleentzat.

50 € Gainerako
pertsontzat



Komunikazioa eremu profesionaletan gutxi garatzen den gaitasuna da. Pertsonen arteko ulermena oztokatzen duten akatsak egiten ditugu, eta, gainera, ez ditugu ezagutzen. Gure ikuspegia ezartzen dugu, argudio eta komunikazio zehatzekin konbenzitzen ahalegindu ordez.

Tailerraren helburuak hauek dira:

- Behar bezala eraikitako komunikazioekin zuzentzea.
- Komunikazio ziurrak eta eraginkorrak garatzea,

portaerak deskribatzea, azaltzea eta justifikatzea bereizita.

- Komunikazioa eta hizkuntza bereiztea.
- Estres negatiboko egoeretan ahozko komunikazioak identifikatzea.

+Info

Izen-ematea

TAILERRAK

2

“Eguneroko bizitarako oinarrizko bitartekaritza-trebetasunak”

GEMA ESCALADA
JOSEAN VILLANUEVA
AMAIA MUNARRIZ

NGLEPKO BITARTEKARITZA-ZERBITZUKO BITARTEKARIA



AURREZ AURREKOA

3 ORDU

TOKIA:

Civican. Iruñea

TALDEA GUTXIENEZ:

10 parte-hartzaile.

DATA: 2023ko MAIATZAK 4, osteguna

ORDUTEGIA:

16:30etatik 19:30etara.

IZEN EMATEKO AZKEN

EGUNA: 2023ko maiatzak 4

DOAKOA elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat

Prestakuntza honen bitartez, bitartekaritza ezagutzera eman nahi da Gizarte Lanaren ikuspegitik.

Espazio bat sortu nahi da bitartekari gisa gure esperientziak transmititzeko eta bitartekaritza sendotu ahal izateko elementu teoriko praktikoak eskaintzeko, gure espazioa bertan bilatuaz.

Justizia Errestauratiboa eta, bereziki, Bitartekaritza, gure lan-eremuetan maiz oso presente dauden gatazkak ebazteko mekanismoa da.

Ikastaro honetan, horri guztiari buruzko gogoeta

egiteaz gain, bitartekotza egiteko zenbait tresna ikasiko ditugu.

Bitartekaritza gure esku-hartze sozialaren instrumentu nagusietako bat izan da, da eta izango da.

+Info

Izen-ematea

Online MINTEGIAK / WEBINARRAK

1

“Taldeko esku- hartzerako paradigmak” Webinarra

DAVID MUSTIELES
www.hacerlobien.net

ONLINE

2 ORDU

DATA: 2023ko martxoak 28,
asteazkena

IZENA EMATEKO AZKEN

EGUNA: 2023ko
MARTXOAK 26

ORDUTEGIA:

17:00etatik 18:30etara.

DOAKOA Nafarroako
Gizarte Langintzaren
Elkargoko elkargokideentzat,
aurre-elkargokideentzat
eta Gizarte Langintzako
ikasleentzat.



Webinar honetan, historian zehar taldean esku hartzeko sortu diren paradigma eta eskola ezberdinak berrikusiko ditugu, horietako bakoitzak gizartelantetik esku-hartzera ekar ditzakeen elementu nagusiak nabarmentze aldera.

+info
Izen-ematea

WEBINARRAK

2

“Jarduera librea” Webinarra

SILVIA MONGE

<https://spiralpersonal.es>

ONLINE

2 ORDU

DATA: 2023ko APIRILAK 17,
astelehena

IZENA EMATEKO AZKEN

EGUNA: 2023ko apirilak 16

ORDUTEGIA:

18:00etatik 19:30etara.

DOAKOA Nafarroako
Gizarte Langintzaren
Elkargoko elkargokideentzat,
aurre-elkargokideentzat
eta Gizarte Langintzako
ikasleentzat.



Jarduera Librea gure sektorean hazteko eta garatzeko aukera mordoa eskaintzen dituen irteera profesionala da, baina, egia da, baita ere, Gizarte-langile batek ekintzailertzan hastea eta Jarduera Librean aritzea erabakitzen duenean, zalantza asko sortzen direla.

Garapen profesionalerako aukera hau gure langileen artean ezagutzera eman nahi genuke, arrakastazko irteera profesional gisa, geure esperientziatik.

+info
Izen-ematea

WEBINARRAK

3

“Narratibaren garrantzia Gizarte Lanean” Webinarra

BELÉN NAVARRO
trabajosocialytal.com

ONLINE

2 ORDU

DATA: 2023ko EKAINAK 5,
astelehena

IZENA EMATEKO AZKEN

EGUNA: 2023ko ekainak 4

ORDUTEGIA:

17:00etatik 19:00etara.

DOAKOA Nafarroako
Gizarte Langintzaren
Elkargoko elkargokideentzat,
aurre-elkargokideentzat
eta Gizarte Langintzako
ikasleentzat.



Idaztea ere zati
garrantzitsua da gure
lanean, profesional gisa.

Webinar honen bitartez,
elkargokideei idazkerari
buruzko oinarrizko
ezagutzak eman nahi
zaizkie, idazten dugun
horretan arreta jartzeko
eta nola egiten dugun
edo nondik hasten garen
jakiteko.

+info
Izen-ematea

(*)

OHAR ARGIGARRIAK

PRESTAKUNTZAREN INSKRIPZIOEI, ORDAINKETARI ETA ITZULKETEI BURUZKO ARGIBIDE-OHARRAK:

- **Eman izena** eskainitako proposamen bakoitzerako emandako inprimakien bidez.
- Norbait erregistratu bada, baina azkenean izena emandako prestakuntzara joaterik ez badu, **prestakuntza hasi aurretik**, ahalik eta azkarren jakinarazi behar du prestakuntza egingo duen jendearen benetako datuak izateko eta gainerako pertsonei oztoporik ez jartzeko. Modu horretan, ikastaroa edo prestakuntza-jarduera benetan zenbat parte-hartzailek egingo duten jakingo da.
- **Behin prestakuntza kobratuta:** norbaitek baja ematen badu prestakuntza **hasi baino lehen**, ORDAINDUTAKO ZENBATEKOAREN %75 ITZULIKO ZAIO.
- **Behin prestakuntza kobratuta:** norbaitek baja ematen badu ikastaroa **hasi ondoren**, EZ DA DIRURIK ITZULIKO.



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

www.trabajosocialnavarra.org

Manuel de Falla, 12 • Entpta. Of. 2 / 31005 Pamplona • Iruñea Navarra / Tlf.: 948 240 401